

Izena: _____ Data: _____

BARBANTXO

Behin batez herri txiki batean aita, ama eta Barbantxo bizi ziren. Barbantxo txiki, txiki, txikia zen. Bere aitak basoan egiten zuen lan, **aizkolaria** zen. Egun batean ama gaixorik zegoen eta ohean gelditu zen, horregatik Barbantxok prestatu behar zuen janaria. Amatxok esan zion:

—Kontuz ibili eta ez erori.

—Ez ama, ez naiz eroriko,- esan zuen Barbantxok.

Baina Barbantxo bazkaria prestatzen ari zen eta **eltze** barrura txirristatu eta erori zen. Igotzen hasten zen, baina, txirristatzen egiten zuen. Azkenean kostata, baina lortu zuen eltze gainera igotzea. Bazkaria hartu, eta, astoaren belarrian sartuta, mendira joan zen. Bidean mutil batzuk topatu zituen, haiek astoa bakarrik zihoala pentsatu zuten, eta dili! dale! astoa joka hasi ziren. Barbantxok oso haserre esan zuen:

—Arraioa! Astoa bakean utzi.

Eta mutilek ihes egin zuten beldurtuta. Bueltan lehengo mutilak topatu zituen:

—Nora zoazte mutilak? —galdetu zuen Barbantxok.

—Apaizaren etxera, txerria hil du eta debalde jango dugu.

Denak saltoka eta korrika joan ziren. Apaizaren etxean Barbantxok txerriaren belarritik oihuka esan zuen:

—Hau goxoa apaiz jauna!


Apaiza etorri zen eta hasieran ez zuen inor ikusi, gero Barbantxo topatu zuen txerriaren belarrian.

Barbantxok ihes egin zuen eta belarretan ezkutatu zen, han behi bat zebilen eta belarrarekin batera Barbantxo jan zuen behiak.

Iluntzean Maddi ukuilura joan zen, Maddi apaizaren **neskamea** zen eta han ahots bat entzuten zuen.

—Hemen nago! Hemen nago!

Hasieran Maddi beldurtu egin zen, baina gero Barbantxo ezagutu zuen.



—Non zaude Barbantxo?

—Behiaren barruan!

—Eta noiz irtengo zara?

—Behiak tur-tur egitean!

Behiak kaka egin zuenean Barbantxo zikin-zikina irten zen. Gero oso ederki bizi izan ziren,

1. Testuan belztuta dauden hitzen esanahia ulertu ondoren, lotu hitz bakoitza dagokion irudiarekin.



ELTZE



NESKAME



AIZKOLARI

2. Zergatik prestatu behar izan zuen janaria Barbantxok?

.....

3. Aukeratu egokia den esaldia:

Barbantxo

- Irristatu zen eta sukaldean erori zen
- Irristatu zen eta eltze barrura erori zen
- Irristatu zen eta eltzearen kontra jo zuen.

4. Nortzuk hasi ziren astoa joka?

.....

5. Zergatik ihes egin zuten mutilek?

.....

6. Zein animalia hil nahi zuten apaizaren etxean?

- Astoa
- Behia
- Txerria

7. Non zegoen ezkutaturik Barbantxo behiak jan zuenean?

.....

8. Nor da Maddi?

- Apaizaren neskamea
- Barbantxoren ama
- Barbantxoren lehengusina

9. Nola atera zen Barbantxo?

.....

10. Sinonimoak lotu

Txirristatu

Ikaratu

Eltze

Irristatu

Ihes egin

Alde egin

Beldurtu

Lapiko